

Errepide bat. Eta kotxe bat errepidean. Lerro zuzena han. Lerro zuzena berriketarako, isiltasunerako, zoramenarako. Lerro zuzena eta amaiezina. Lerro zuzena eta bat-batean makurra. Lerro zuzena iparralderantz. Errepidea, bazterrak. Errepidea eta seinaleak, autostopisten mamuak, marra jarraituak eta etenak, gasolindegia, plast! haizetakoaren kontra zomorroak. Odola, izerdia eta malkoak: aurrera, aurrera beti.

Restop. Restaurante El Figón. Travel Club. Club La Boheme. Peaje. Toll.

Go on. Go on.

Errepidea eta bidaia, asfaltozko metafora, auto-ezagutza, penitentzia, deserria, basamortuan zehar egindako ibilbidea. Itaka. Literaturaren historian tradizio oparoduen generoa. Zer uste zenuen ba. Gauza hauek funtamentuz egiten dira. Aurreko literaturaren errebisio batez. *Status quaestionis*.

On Quixote, errepideak asfaltozkoak ez ziren garaikoa. *The Road*, asfaltozko errepideek dagoeneko ezertarako balio ez duten apokalipsiaren osteko garaian. Edo bestela, erdibidean, *On the road*, klasiko bat. Edo *Suminaren mahatsak*, beste klasiko bat. Eta ez ahaztu *Lolita*. Zer esan *Lolita*z. Lo-li-ta.

Bai, Iparramerikako literatura nagusi. Eurek asmatu zituzten errepideak eta.

Baina are euskal literaturan ere, tentuz arakatuz gero. Errepidea laket izan duten euskaldunak egon dira historian. Errepidea eta bujiak. Gasolinaren usaina. Abiadura maldan behera. Zulatzen diren gurpilak. Denek ez dute ozeanoa zeharkatu indioak masakratzeko, Japonia ebanjelizatze-ko, Filipinak konkistatzeko. Batzuek errepidea nahiago. Etxepare medikuak *Beribilez* eleberria utzi zigun 1931. urtean. *Agorrilaren lehen astezken-goiz batez abiatu ginen beraz Cambotik zazpi lagun*. Ezin jakin zeinen azkar deuseztatuko genuen hitz hori. Beribila. Elhuyar hiztegiak bere altzoan dauka oraindik, eta horregatik ez dit word zuzentzaileak gorritz markatu. Hori ere bada nire kezka. Hemendik urte batzuetara ulertuko ez dituzun hitzekin orriak betetzea. Alferrikako ahalegina. Adierazle hutsa. *Hiru gizon eta lau andre, bi beribil atherbedunetan*.

Baina goiz da horretaz aritzeko. Has gaitezen suabe, lehenengo martxa batekin, motorra berotuz. Pisu handi-koa da mugitu beharreko tramankulua.

Norena da ideia? Zurea. Demagun zurea dela. Zurea behar du izan. Zuk esaten didazu:

—Eta zergatik ez, Ulia?

Eta nik erantzuten dizut:

—Baina zertara dator hori, Gustavo?

Gustavo zara proposamen bitxiak egiten dizkidazu-nean. Gus, supermerkatuan txokolate beltza erosteko es-
katu behar dizudanean. Gustavito, zure kontura barre egin
nahi dudanean. Gusiluz kalenturak harrapatzen zaituenean.
G puntua. Gustavo igela. Gustav Mahler. Gustave Eiffel.

Gustave Flaubert. Gustavo Adolfo Bécquer. Nire beltza, nire maiordomoa, nire jabea. Nire gidaria. Batez ere nire gidaria.

Demagun kotxe berria probatu nahi duzula. *Errodatu*, esaten duzu. Demagun kotxe berria errodatu nahi duzula. Demagun oporraldi lasaia behar duzula, ardo ona eta itsasoa. Plazer txikiak, plazer motelak. Errepide sekundarioak. Errepide sekundarioak beti, ados? Sekulako urtea izan duzu; azkena, astebeteko eskapada Errepublika Dominikarrera, litigazio internazionalako masterrean klaseak ematera. Gogorra da gero zure bizimodua. Ulertu egin behar dut.

Tira ba. Demagun behingoz eta fundamentuz nire herria ezagutu nahi duzula, nire lurraldea, nire sehaska. Bada garaia, ezta? Aski da, nazkatuta naukate asteburuko pre-sazko bisitek, familia konpromisoek, ezkontzek eta hiletek. Lurralde horretan murgildu nahi duzu, blaitu. Aberria. Abaroa. Abisinia. Nire galbidea, hitz batean. Baina ez, hori oraindik ez dakizu. Jakingo duzu. Horretan datza bidaia, auto-ezagutza eta abar.

Gustavo, zurekin korritu dut Messarako lautada, baina sekula ez Arabako lautada. Mojaveko desertuan sartu ginen aire girotua izorratua zuen auto alokatu batekin, baina ez gara inoiz ausartu Bardean sartzera. Ferryz zeharkatu dugu Gibraltarko itsasartea, bisigua jan dugu Bosforotik nabigatzen zuen itsasontzian, baina ez dugu inongo barkutatik esploratu Zumaiaiko *flysch* ospetsua. Salemgo museo barregarri batean sartu ginen, gaizki mozorrotutako aktorez betea, baita azkar atera ere, baina ez gara inoiz kezkatu Zugarramurdiko sorginez eta haien akelarreez.

Bada garaia, ezta?

Hortaz, bai, demagun baietz esaten dizudala, zure nahi eta beharretara biltzen naizela amoroski. Ni horrelakoa naitzelako, zurekin, batzuetan. Demagun, beraz, entusiasmo neurtuaz erantzuten dizudala:

Tira, ez da hain ideia txarra ere.

Ez dakit ba, amari deituko diot ea zer dioen.

Ez nuen halakorik espero, baina...

Eta halako batean, ni ohartu orduko, plana gehiegi hazi da, beranduegi da abortuetaarako, zertan ari naizen neure buruari galdetzeko. Abiatu egiten gara. Aberri abegikorre-rantz abiatu. Hemen gaude. Kotxe berrian. Errepidean. Lerro zuzena eta abar.

Hasieran beharbada ez dugu gehiegi hitz egingo, goiz da oraindik eta erdi-lo egon gaitezke. Musika jarriko duzu, bidaiarako propio aukeratutakoa. Musika elektronikoa la-saia: Tracey Thornen bigarren bakarkako lana, azaltzen didazu, niri gauza horiek berdin zaizkidan arren. Gero, halako batean, urgentziaz eskatzen didazu hizketa-gai ma-mitsu bat. Lokartu egingo zara bestela, arraioa. Ahal du-da-na egiten dut. Ama ekartzen dut berriz hizpidera. Hobeto egongo garela bera gabe, nahiz eta denok antzeztu dugun ezinegona gu hara goazenean bera Granadarako bidean egongo dela jakiterakoan.

Pozik zoaz autoan. Igarri egiten dizut. Deskubrimendu liluragarria egin duzu azken bolada honetan: objektuekiko maitasuna.

Eta maitasun berriki deskubritu horretan, ez zara oso originala izan, sentitzen dut.

Bost urteko aurrerapenarekin ari zara 40etako krisialdia igarotzen, eta 15 urteko atzerapenarekin ezagutu duzu zer den automobil bat maitatzea. Eta ezkututzen saiatzen zara, akaso orduz kanpoko zaletasun honetaz apur bat lotsatzen zarela. Baina igarri egiten dizut. Eskuak bolantean paratzeko zure moduan. Harrotasunez, segurtasunez. Baina ez hori bakarrik, trinkotasun amultsu horretan beste zerbait ere badagoela esatera ausartuko naiz. Eta maitasuna deituko diot. Hitz horrek ez dit beldurrik ematen.

Objektuek –zenbait objektuk– sentimenduak eragiten dizkigute, eta guk, truke zintzoan, truke baboan, sentimendu sorta oso batekin erantzuten diegu. Horrelakoak gara.

Entzuna dut tabakoa uztea eta lagun baten lutoa igarotzea antzeko prozesu psikologikoak direla. Tabakoa arroka bat da. Konfiantza eragiten digu. Hor dago beti, geuretzat, zain. Erretzen ari ez garenean ere, eskua poltsara eraman eta paketearen forma zorrotzak esku-ahurrean sentitzeak etorkizun zein iraganeko lasaitasun eta askatasun momentu horiek guztiak birbizitzea ahalbidetzen digu. Tabakoa beti dago gertu gure laguntza deiei erantzuteko: parentesia ekaitz basatiaren erdian, lagunarteko afalosteari naturalki gehitzen zaion azken kidea, udako gau izartsu bati behar bezalako transzendentzia gehitzen dion kea. Hobeak egiten ditu momentu onak eta gauza bera egiten du momentu txarrekin. Erraz askatzen ditu sabeleko korapiloak, negar egiteko gogoak. Geure irudi publikoaren osagarri egokia bihurtzen da, horrelakorik behar izatekotan. Ez al da hori guztia lagun on bati eskatzen dioguna?

Nikotina ez da aitzakia. Menpekotasun fisikoa 24 ordutan igarotzen da. Prozesu emozionala, lagunari behin

betiko agur esate hori, ez da batzuetan bizitza oso batean behar bezala igarotzen.

Zer esan, beraz, autoari buruz. Kapitalismoak sortutako totemik perfektuena, mende bakarrean kapital sinboliko handiena pilatu duena, aurrena lehen munduko gizonen eta orain *garapen bidean dauden herrialdeetako* gizonen auto-estimuan zein identitatean hain rol determinantea jokatu duen makina perfektu eta behinena. Bataz besteko gizasemeak inoiz erosiko duen objekturik handiena. Eta garestiena. Hiru ordutako auto-ilara batean berarentzat eresia duen espazio sakratua. Aterpe gurpilduna. Autoen aurrealdeak garatu duen itxura antropomorfitikoa erlazio afektiboa hauspotu besterik ez du egiten. Auto irribarre-tsuak, auto kontzentratuak, auto solemneak. Ingeles-hiztunek neska kontsideratzen dute: “good girl!” esaten diote izozte baten ostean motorraren orro harroa entzuten dutenean. Auskalo zergatik.

Bai, Gustavo, maite duzu zure BMW Serie 1 berria. Bluewater kolorekoa. Linea Urban. Ez da bakarrik maite duzula, alegia, *in love* zaudela. Bere gainazal sentsuala behar bezala garbitzeko mikro-zuntzezko eskularrua erosten harrapatu zaitut internet bidez, laztana. Mikro-zuntzezko eskularru bat.

Edozein kasutan: maite duzu. Negar egingo zenuke itsaslabar batetik behera erortzen ikusiko bazenu, kale-istilu batzuen ostean sutan topatuko bazenu; eta haren oroimenak bizitza osoan zehar egingo lizuke ku-ku, zuk gutxien esperoko zenukeen momentuan. Berandu iritsi zara puntu honetara, baina sutsuki. Zergatik orain? Zergatik ez hamazortzi urte bete zenituenean, tesia amaitu zenuenean,

lanean hasi zinenean, edo titularitatea lortu zenuenean? Zergatik ez Estatu Batuetan bizi zinenean, zeinetan errepi-deak eraiki zituzten hiriak eraikitzen hasi aurretik? Zergatik ez Gabonetan edo zure urtebetetzean? Zergatik orain, egutegian kolorerik gabe markatuta dagoen uda estandar baten hasieran? Eta zergatik kotxe hau, BMW berri bat. Nola ailegatu zinen kotxe honetara?

Gogorarazi egingo dizut nola.

Bigarren eskuko aldizkariak begiratzten hasi zinen, A puntutik B puntura eramango zintuen edozeren peskizan. Clio bat. Ford Ka bat. Edozer gauza, benetan. Gero auto berri baten alde egin zenuen, epe luzean eskertuko zenuelakoan, eta lagunei aholkua eskatu. Megane bat, esan zizuten, estra apur batzuekin txukun gelditu daitekeen kotxea. Seat Leon, agian agresiboegia zuretzat, Gustavo, ez da zure estiloa. Volvo bat? Ez, oraindik gaztea zara horretarako. Volkswagen Polo bat, auto fidagarria besterik nahi ez dutenen autoa. Horixe, horixe. Horrela hasi zinen obsesionatzen auto alemaniarrekin. Denak kontsideratu zenituen, Bavariatik Baden-Württembergeraino. Opeletik hasita Porsche batekin fantaseatzeraino.

Municheko familiaren auto konpaktu batekin gelditu zinen azkenean: markan sinetsi bai baina nabarmenkerietan ibili nahi ez duten horientzat. BMW bat izanda ere, luxuzko kotxea kontsideratu ezin daitekeena, txikia delako, apala, efizientea eta diskretua. Badakizu zure lagunek apustuak egiten zituztela zure kontura? Nik hamar euro jokatu nituen Audi A3 bat erosiko zenuela. Niri, sekretuan, gehiago gustatzen zait. Berandu sartu ziren Espainian Audi autoak, 1993an, eta BMWren deskalabrua ekarri